

Mila esker hemen egoteagatik

🏠 Osasun-langileen ordezkariak gara(sendagile, erizain, auxiliar eta administrariak), nahiz eta hemen gutxiago egon , orain irakurriko dizuegu orria, ORAINGOZ , 83 kideengatik adostutako eta sinatutako orria da. Egunak pasa ahala gero eta atxikimendu gehiago jasotzen ari gara.

Denok, Tolosaldea Eskualdeko osasun-zentroetan eta espezialitateen anbulatorioan lan egiten dugu, ondorioz ZUEN OSASUN ARRETA GURE EGUNEROKO ARDURA DA.

Horregatik zera esan nahi dizuegu TOLOSALDEKO HERRITARREI

🏠 Osasun Sailak INVIZArekin (Asuntzion klinikarekin) sinatuta daukan hitzarmena, azken lau urte hauetan indarrean egon eta gero, 2016ko azaroan bukatzen dela jakin dugu.

Garaia da beraz,Tolosaldean, etorkizunean, zer osasun-eredu jaso behar dugun, DEFINITZEN joateko.

🏠 GURE KEZKA agertu nahi dugu gaur egun Tolosaldean ematen ari den osasun-arreta dela eta; izan ere, kontuan izan behar dugu ZER GABEZIA DITUEN (lau urte hauetan jasandakoak):

1. Osasun-langileen eta gaixoen arteko ratioak nabarmen txikiagoak dira, baldin eta alderatzen baditugu kudeaketa publikoko eskualde-ospitale publikokoekin
2. Traumatologian eta Kirurgian, ez daukate guardiako espezialisten presentzia fisikorik eta Oftalmologian, Otorrinolaringologian (ORL) eta Urologian ez presentzia fisikoko guardiakorik ezta ere lokalizaturik.
3. Espezialitate dezente lanaldi partzialeko espezialistekin atendituta dituzte.
4. Sarri aldatzen dira espezialistak plantilan.
5. Sendagile batzuek, espezialisten lanak egiten dituzte espezialista izan gabe.
6. Ez dago behar bezala osatuta material eta leku aldetik, egin beharreko obrak ez zituelako egin.
7. Batzuetan, sendagile jubilatuak aritu dira lanean.
8. Lan baldintzak, zentro publikoetako langileek dituztenak baino okerragoak dira.
9. Bi sistema informátiko independente dauzkagu eskualde honetan.
10. etabar, etabar....

🏠 Horiek horrela, NEKEZ EMAN DEZAKE kudeaketa publikoko eskualde-ospitale publiko baten antzeko kalitatezko osasun-arreta, izan ere, haien egoera bestelakoa da.

■ Horregatik guztiagatik, Tolosaldeko herritarrok Euskadiko gainerako eskualdeetako herritarren antzeko arreta jasotzeko, Tolosaldeko eskualdeak ezinbestean baldintza hauek bete beharko ditu:

1. Kudeaketa publikoa duen eskualde-ospitale publiko bat (Asuntzion klinikaren publikazioa)
2. Espezialitateen anbulatorio bat, behar bezala hornituta eta osatuta

DEIALDIA:

Gizarteko alor desberdinetako ordezkari eta gizarte komunitate osoari deia luzatzen diegu azaroaren 7an, larunbata, eguerdiko 12etan Tolosako Triangulo enparantzan elkartzeko.

Ekitaldi honekin hasiera emango diegu gure helburuak lortzeko hemendik aurrera antolatuko ditugun ekintzei.